




# Finantza Etikoen kolorreak

Erakusketa

# Finantza Etikoen koloreak

Erakusketa



## Finantza Etikoen koloreak

Pozaren distira dute. Finantzen sistema alternatiboko pertsonen aurpegietan ikusten da elkartasunean eta gizarte-onuretan oinarrituta funtzionatzen duela. Zoriontsuak dira itxaropenezko egunsenti bat dutelako, eta egunari amaiera ematen diotelako jakinda biharamun hobeago eta justuago bat dagoela.

Pertsona, erakunde eta mugimendu guztiei, pluribertsorantz eraldaketa-eragile subertsiboiei, bestelako mundu eta ekonomiak irudikatzen eta margotzen dituztenak.

Erakusketaren antolatzailea:



Babesleak:



## Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	11
<b>Mikrokredituak</b> .....	12
<b>Kooperatibismoa</b> .....	20
<b>Bidezko merkataritza</b> .....	28
<b>Hezkuntza eraldatzailea</b> .....	36
<b>Emakumeen ahalduntzea</b> .....	44
<b>Agroekologia</b> .....	52



Esku artean duzun argitalpen honek **'Finantza etikoen koloreak'** erakusketa ezagutzeko aukera ematen dizu, nonahi zaudela ere. Ekimen eraldatzaileak ezagutuko dituzu, beste mundu bat posible dela erakusten digutenak, kontrakoa saltzen saiatu badira ere. El Salvador, Nikaragua eta Euskal Herriko pertsona eta erakundeek egunero egiten duten lan nekaezina kontatuko digute, inor atzean uzten ez duen mundu bat eraikitzeko.

*Urdin eroa eta berde eroa  
lihoaren adar-loretan.  
Dantzan dabil urdina  
olatuen gorabeheretan.*

*Urdinari hostoak erortzean,  
berdeak dantzan darrai;  
hirusta-berde, oliba-berde  
eta berde-limoi alai.*

*Hau edertasuna!  
Hau Kolorea!  
Gorri epel eta gorri suhar  
-arrosak eta krabelinak lehertzeaz-  
Gorria nagusitzen da,  
berdeek etsitzean.*

*Bat bestearen atzetik dantzan,  
badatoz norgehiagokan,  
gorriak hain dantzari,  
erretzen dira beren garretan.*

*Hau zoramena!  
Hau Kolorea!*

*Badator horia  
handiki eta gogo biziz  
Agamemnoni bezalatsu  
guztiek bidea irekiz.*

*Gizatiar eta jainkotiar  
distira santua dantzan:  
urrezko adarren lurrina  
eta azafraia balantzan.*

*Hau sukar-ametsa!  
Hau Kolorea!  
Eta, azkenik, badoaz  
eguzkiaren atzetik liluratuta,  
aita edo lapur baten gisan  
daramatza helduta.*

*Gurekin eskuz esku ziren,  
baina egin dira joan:  
munduaren ipuina hiltzen da  
kontalaria hildakoan!*

*Aginteak maite du uniformetasuna. Ñabardurak ez ditu bat ere maite. Dena da bat harentzat.  
Hitzek ere esanahi bakarra dute. Haizea ere bat bakarra: lurrazalarekiko higitzen den aire-masa.  
Besterik ez.*

*Horregatik gizarteak haize berri behar du aldian aldian, horretarako da espirtu kritikoa.  
Prozesu luze honek zigortu nahi duena. Eta gogoan hartu haizeak mila kolore dituela, mila  
koloretakoak garela gizabanakoak.*

**“Haizearen koloreak”**

Kirmen Uribe

**“La ronda de los colores” (Koloreak jira-biran)**

Gabriela Mistral



## Finantza etiko eta alternatiboak

Finantza Etiko eta Alternatiboek mundua justiziaz koloreztatzen dute desparekotasuna murrizteko eta ekonomia-jardueraren bidez gizarte- eta ingurune-helburuak lortzeko. Xede nagusia da gizarte-eraldaketa eta pertsonen "ondo bizitzea" babestea, nor bere buruarekin, gizartearekin eta naturarekin harmonian bizi dadin, izan daitezkeen beste mundu batzuk marrazteko. Solidarioagoak.

2020. urtearen hasieran zabaldu zen ikara eragiten duen datu hau: munduko 22 gizonik aberatsenek Afrikako emakume guztiek baino aberastasun handiagoa dute, eta biztanleriaren % 1 aberatsenak 6.900 milioi pertsonen dute aberastasunaren bikoitza du. Bidegabekeria horiek mundu-mailako desparekotasuna eta pobrezia iraunarazten dituen ekonomia-sistema zeken, diruzale eta sexistaren ondorioak dira. Sistema horri erantzuteko sortu dira ekonomia soziala eta finantza etikoak. Bien oinarri nagusia da diruak pertsonen zerbitzura egon, giza eskubideak defendatu eta planeta zaindu behar dituela.

Finantza etikoen sisteman ekimen hauek daude: banka etikoa, kreditu-kooperatibak, finantza-zerbitzu etikoak, aurrezki komunitarioko taldeak, finantzaketa kolektiboko plataformak, autofinantzatutako komunitateak, gizarte-funtsak, mikrokredituak, artekaritzak eta aseguru-etxe etikoak... Ekimen horietan guztietan, pertsonak edo erakundeak badaki

bere dirua non eta zer asmorekin inbertitu den. Horri esker, ez da ekintza moralki arbuia garritik finantzatzeko, eta aldiz, gizarte- eta ingurumen-proiektuak babesten dira, banku formalak urteetan zehar baztertutako pertsonen eta kolektiboek kredituak errazago eskuratzeko.

Erakunde horien artean dago Finantzaz Haratago, Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea. Elkarte hauei esker sortu zen erakundea: Elkarcredit elkartasun-erakundea, Mugarik Gabeko Ekonomistak (Economistas Sin Fronteras), Fiare Elkarte, Koop57 EH eta Oikocredit Euskadi. Finantzaz Haratago da "Finantza Etikoen koloreak" argazki-erakusketako sustatzailea.

Finantza etikoetako erakundeek eragin positiboa dute gizartean, ekintza bakoitzean eta maila guztietan betetzen dituztelako printzipio hauek: parte-hartzea, erantzukizuna, gardentasuna, parekotasuna, inplikazioa, etika aplikatua...

Arlo hauen alde egiten dute lan, besteak beste: agroekologia, elikadura-burujabetza, feminismoa eta emakumeen ahalduntzea, mikrokredituak eta garapenerako kooperazioa, eraldaketarako hezkuntza, kooperatibismoa, ekintzailtza, gizarte-ekimena, komunitateko eta tokiko garapena, bidezko merkataritza eta kontsumo kritikoa eta arduratsua. Guztiek, nola hala, bat egiten dute "Finantza Etikoen koloreak" erakusketako irudietan.

# Mikrokredituak



**Mikrokreditua** zera da: pertsona behartsuei mailegu txikiak ematea euren kasa ekonomia-jarduera errentagarriak egin ditzaten. Mikrofinantza-sektorearen helburua da ekintzaitza txikiak egiteko aukeren bidez, pertsona zaurgarrien bizi-baldintzak hobetzea behar adinako errenta lortu eta pobreziatik irteteko.

Horrez gain, mikrokredituak kreditua eskuratzeko giza eskubidea bermatzeko ere sortu ziren. Izan ere, finantza konbentzionalek ez diete mailegurik ematen abalik edo bermerik aurkeztu ezin duten pertsoneri. Ondorioz, sarritan, finantzazio informalerara jotzen dute eta, askotan, modu horretako finantzazioa legez kanpokoa izaten da eta interes oso altuak ezartzen dituzte.

Muhammad Yunusek eta Grameen Bankuak (mikrokredituen sortzaileak) Bakearen Nobel Saria jaso zuten 2006an gizarte- eta ekonomia-garapena sustatzeko egindako ahaleginagatik. Hala ere, azken urteotan haien sistemaren eta jarreraren aurkako eztabaidak eta kritikak argitara irten dira. Mikrokredituaren boomaz geroztik, eskaintza tradizionala hedatu egin da: orain, lehenik zerbitzu gehiago daude, esaterako, aurrezkiak eta maila txikiko aseguruak edo transferentziak; bigarrenik, metodologiak aldatu egin dira; eta, azkenik, banku komunalak nahiz taldeko, banako eta bestelako maileguak daude aukeran.

Garapenerako kooperazioaren gakoa babesa ematea da, bereziki finantzarioa edo ekonomikoa, mikrokredituen edo bestelako proiektuen bidez. Lan horren xedeak hauek dira: batetik, herrien eta pertsonen arteko elkartasuna eta lankidetzak sustatzea benetako giza garapen jasagarria lortzeko; eta bestetik, etorkizun bidezkoagoa eta duinagoa nahi duten kolektiboen, herrirakundearen eta komunitatearen prozesuak errespetatzea eta babesa ematea.

Nikaraguan eta El Salvadorren putxitos deitzen diegu mikrokredituei, puchittoa zerbait txikia baino oso baliotsua baita Erdialdeko Amerikako nekazariarentzat. Maileguak tokian tokiko mikrofinantzariak kudeatzen dituzte, gure proiektuen kideek, eta diruarekin batera, maileguak nola erabili jakiteko prestakuntza ematen dute. Mikrofinantzen helburua ekoizpeneko hasierako faseetan laguntzea da, nagusiki, oinarritzko saskia osatzen duten elementuen ekoizpenean, elikadura-burujabetza indartzeko.

Garapena erabateko prozesua iruditzen zaigu eta arlo sozioekonomikoa garapenaren zati garrantzitsua da. Horregatik, gure jomuga nagusia genero-parekidetasuna sustatzea eta landa-eremuetako gazteei laguntzea da.





Mikrokredituek kreditu-eskubidea bermatzen dute. Mikrokredituen sistemaren bidez, lan finkorik edo diru-sarrerarik ez duen jendeari beharrezko baliabideak ematen zaizkie bizitza duina izateko proiektua martxan jar dezaten. Izan ere, edozeinek du bere aukera garatzeko eskubidea eta, horretarako, kreditua lortzea giza eskubidea da.

ACAPRODUSCA (Asociación Cooperativa de Ahorro, Crédito, Aprovisionamiento y Comercialización de Productores de El Salvador) da ekonomia solidarioaren eragile nagusia. Elkarte horrek kapitalismoak banku tradizionaletik kanpo utzitako familia behartsuei bizitza-proiektuak garatzeko laguntza ematen die mikrokredituen bidez.





Silvia Cotok (27 urte) 8 urteko alaba du, Endi Jerusalem. Duela lau urtetik barazkien eta fruten salmenta-postua du eta ACAPRODUSCArekin ari da lanean. ACAPRODUSCAK 500 \$-eko kreditua eman zion eta eguneko kuota 3 \$ da. Hala dio Silviak: "diru hori gabe nekez jarri ahal izango nukeen salmenta-postua, eta horixe da nire diru-iturri bakarra".



Marleni Chacon artisau-gaztak egiten hasi da mikrokreditu bati esker, El Salvadorko herri txiki batean, Los Marranitosen. 44 urte ditu eta 13 eta 29 urte arteko zazpi seme-alaben (lau mutil eta hiru neska) ama ezkongabea da. Egunero 55 botila esne prestatzen ditu eta Zacatecolucan saltzen ditu gaztak, enkarguz. Ateratako diru-sarrerari esker, etxeko beharrak asetzen ditu. "15 urtez aritu nintzen eskola-txalet batean saltzaile, eta orain gaztak eta txorizoak egiten ditut".

Surchitotoko La Cruz auzoan, Rafael Palacio etorbidean, El Salvadorren. Hantxe ari da Maria Leticia Tobar taloak egiten. 47 urte ditu, 8 urte daramatza lanean eta duela lau urte ekin zion bere saltokiari. 8:00etatik 14:00etara bitartean, mila talo inguru egiten ditu eta 6 zentabean saltzen du bakoitza. Orea egiteko artoa ACAPRODUSCAri erosten dio, kintaleko 21-22 \$ ordainduta. Beste banatzaile batzuek, ordea, dolar bat garestiago saltzen diote. "Ez dut garraioa ordaindu beharrik artoa salmenta-postura bertara ekartzen didatelako. Eskatzen dudana bakarra da artoa osasungarria izan dadila, kalitate bikainekoa."



Finantza etikoen begirada. Sistema solidario, alternatibo eta eraginkor horrek familia askori etorkizunerako itxaropena ematen die. Familia horiek etortzeko dagoenari baikortasunez begiratzen diote banku etikoen eta mikrokredituen (hau da, putxitoen) bidez martxan jarritako bizitza-proiektuei esker.



# Kooperatibismoa



**Kooperatibismoa** zera da: pertsonen arteko lankidetzak ekonomiko eta sozialaren bidez ekoizleak eta kontsumitzaileak borondatezko elkarteetan -kooperatibetan- elkartzen dituen gizarte mugimendua, haien beharrak hobeto asetzeko.

Gaur egun, mugimendu kooperatiboak indar ekonomikoa du eta haren etekinak piramidearen oinarriak dira, alegia, gehien behar duten pertsonak finantzan sartzeko eta gizarte-, ekonomia- eta ingurune-garapenerako aukerak sortzeko.

Hauetako dira kooperatibismoaren balioak:

- Kide askea: edozein izan daiteke kooperatibako kide ezarritako legealdintzak betetzen baditu.
- Ahalegina: ezarritako helburuak lortzeko motibazioa izatea.
- Elkarlana: guztion arazoak konpontzeko taldean lan egitea.
- Erantzukizuna: ekintzak egitean kideekiko konpromiso morala sentitzea.
- Zuzeneko demokrazia: kooperatiba kudeatzeko erabakiak partaidetzan eta guztien artean hartzea.
- Parekotasuna: kide guztiek eginbehar eta eskubide berberak izatea.
- Ekitate: soberakinak kooperatibako kide guztien artean zuzen banatzea.

- Elkartasuna: arazoak konpontzean elkarrekin lan egitea eta elkarri laguntzea.
- Balioak sustatzea: balio etikoak bultzatzea.

Batzuetan, kooperatibek etekina ateratzen diete onura fiskalei eta finantzazioa ematen dieten gobernuko programei. Onura horiei esker, kooperatibak gehitu egin dira, kasurako, Latinoamerikan. Han argi dute bidezko merkataritza posible dela, ingurumena zaintzen baitute nekazaritza ekologiko eta jasangarriaren bidez. Kooperatibismoa, beraz, errealitatea ulertzeko eta mundua ikuspegi humanoagotik eta solidarioagotik ikusteko beste modu bat da.

Egun, kooperatibismoak erronka handiak ditu globalizazio neoliberalaren aurrean eta beharrezkoa da erronka horiek onartu eta ebatzea ekonomia-, produkzio- eta gizarte-garapenerako benetako alternatiba izateko. Kooperatibismoaren balio etiko eta moralak kapitalismoaren alternatiba dira: balio despotikoen eta indibidualisten ordez, elkartasuna, mutualismoa eta erabakiak guztien artean hartzea lehenesten ditu. Nolanahi ere, kooperatibismoa oraindik aurre egin nahi dion merkaturako arauen mende dago, eta horixe da arazoa.



Koopera bigarren mailako kooperatiba da eta Caritasek sustatutako gizarte-ekimeneko kooperatibek eta gizarteratzeko enpresek hartzen dute parte. Ekimen honen helburua da gizarte-bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonak gizarteratzea eta lanean txertatzea. Xede hori betetzeko, hainbat ekintza egiten dira, besteak beste: ingurunearen zerbitzuak, berrerabiltzea eta birziklatzea, kontsumo jasagarria, prestakuntza eta pertsonentzako arreta.



Boga artisaugaragardoa egiten duen ekoiztetxe txikia da eta zazpi gazte profesionalak egiten dute lan bertan. Ehundik gora gizarte-erakundek eta pertsonak lagundu diete diruz eta finantza etikoen bidez finantzatu zuten proiektua. Goienerrek ziurtatutako energia elektrikoa erabiltzen dute, % 100 berriztagarria.



ACAPRODUSCA biltegian, El Salvadorren, gazte-talde batek artoa bildu, garbitu, sailkatu eta gordetzen du. Lan horrekin lortzen duten diruaren bidez, gai dira hazteko eta motorrez gozatzeko; horixe baita euren zaletasun eta garraiobide nagusia.

El Salvadorko emakume nekazariak errefaua biltzen dute ACAPRODUSCAko lursail erakusgarrietan. Teknika agroekologikoak erabiltzen hasi direnetik jasotako lehen uzta da eta orain teknika horiek erabiltzen dituzte euren lursailetan ere. Pozik daude lurra lantzen ikasi dutelako eta lagun berriak egin dituztelako generoari buruz hausnartzeko.



Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Langileen Nazioarteko Elkarteak (La Asociación Nacional de Trabajadores Agropecuarios, ANTA) zenbait familiari lurra ematen dizkio El Salvadorren, El Gramal Kooperatibaren bidez. Familia horien bizibidea horixe denez, lurra emankorrek izan daitezten saiatzen dira elikagaiak eurek jateko zein zuzenean saltzeko. Aurreztutakoari eta soberakinekin lortutako diru-sarrera gehigarriari esker, oinarritzko beste behar batzuk asetzen dituzte.

Emakume hau Taxi da, horrela deitzen zioten. Nikaraguako Gloria Quintanilla Kooperatibako aurpeirik adeitsu eta alaienetakoa du. 18 seme-alaben ama da. 79 familiaz osatutako herrixkan bizi da eta kafe organikoa ekoizteaz arduratzen dira. Kooperatibari esker, ekoizteko azpiegitura hobetu dute eta laster urbonba bat jarri nahi dute lanak errazteko.



# Bidezko merkataritza



**Bidezko merkataritza** GGKEk, NBEk eta gizarte- eta politika-mugimenduek sustatutako merkataritza bide alternatiboa da, eta ekoizleen eta kontsumitzaileen artean borondatezko eta bidezko merkataritza-harremana indartzea du helburu. Erabateko garapena lortzeko bidean, lehentasun hauek dituzte: ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatzea; herrien, kulturen eta tradizioen idiosinkrasia errespetatzea; eta oinarrizko giza eskubideak bermatzea.

Hauek dira merkataritza-sistema solidarioaren oinarriak:

- Lan-baldintza eta soldata egokiak Hegoalde Globaleko ekoizleak duintasunez bizitzeko.
- Haurren lan-esplotaziorik ez.
- Gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna: guztiek pareko jokabidea eta ordainsaria jasoko dute.
- Ingurumena errespetatzea: produktuak ingurumena zainduz ekoitziko dira.

Bidezko-merkataritza Hegoalde Globaleko eta Iparraldeko erakundeek sortutako nazioarteko mugimendua da eta lankidetzan oinarritzen da. Bi helburu ditu: lehenik, babes gutxien duten ekoizleei merkaturako sarbidea erraztea; eta bigarrenik, nazioarteko merkataritzako arau bidegabeak aldatzea, pobrezia eta mundu-mailako desparekotasuna indartzen baitute.

Ekonomia solidarioaren arabera, bidezko-merkataritzaren gakoa gure beharren inguruan hausnartzea da. Gizarte jasangarriagoa eta bidezkoagoa lortzeko, erabaki-ahalmena izan eta gure beharrak asetzeko bestelako hautuak egin behar ditugu, harremanak aldatzeko eta ekoizpena-banaketa-kontsumoa-hondakinak prozesuaren eredu berriak eraikitzeko. Izan ere, oraingo eredu hegemonikoa kapitalista, patriarkala, kolonialista eta, oro har, baztertzailea da, normaren barruan sartzen ez diren identitateak eta bizimoduak alde batera uzten baititu.

Kontsumo kritiko eta kontzientea egiteko benetan behar duguna bakarrik kontsumitu behar dugu. Horretarako, zerbait erosi aurretik, galdetu zeure buruari: hau benetan behar al dut? Erabakia hartzerakoan kontuan izan behar dira: ingurumen- inpaktua; zer komertzio-mota hobetsi nahi dugun; erositakoaren kalitatea, produktu osasuntsuagoak eta iraunkorragoak izateko; bertako saltokien alde egitea...

Kontsumitzea ariketa politikoa da eta erosten dugunean geuk nahi dugun mundua eraikitzen dugu. Vandana Shivak honela defendatzen du elikadura-burujabetza: "gauzak aldatzea nahi dutenek, hiru aukera dituzte egunean: gosaltzean, bazkaltzean eta afaltzean". Bada, gauza bera gertatzen da gainerako erabakiekin ere: zer jantzi, nola bidaiatu, zer enpresaren alde egin...





Kidenda bidezko merkataritzako proiektua da. 1996. urtearen amaieran sortu zen eta 2002an ireki zuen denda Epaltzaren Alargunaren kalean, Bilbon. Denda horretan, egungo ekonomia-sistemaren alternatiben inguruan hausnartzen eta lan egiten dute, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua kontuan izanda.

Gloria Quintanilla Kooperatiba Landa-eremuko Langileen Elkartearen (Trabajadores del Campo) barnean dago (ATC, La Vía Campesinaren barruan). Kooperatibak 22 kide inguru ditu, herrialdeko nekazarien elkarterik arrakastatsuenetakoa da eta ezaguna da bertako praktika agroekologikoengatik. Hainbat familiatako hiru belaunaldi aritzen dira kafea ekoizten. Kooperatibismoari esker, instalazioak hobetu dituzte eta ekoizpena areagotu dute; esaterako, ur-bonba bat jarri dute ura errazago lortzeko.



Bidezko merkataritza justizia globalaren alde egiten duen nazioarteko mugimendua da. Bidezko merkataritzak baldintza justuetan ekoiztako produktuak merkaturatzen ditu, gizarte-mobilizazioa eta intzidentzia politikoa bultzatzen ditu, eta pobrezia eta desperekotasunaren oinarriak salatzen ditu. Merkataritza-sistema alternatiboa garatzen du eta eredu horretan herrien eskubideak eta ingurumenaren eskubideak dira ekonomia-jardueraren ardatza.



Bidezko merkataritza justizia globalaren alde egiten duen nazioarteko mugimendua da. Bidezko merkataritzak baldintza justuetan ekoiztako produktuak merkaturatzen ditu, gizarte-mobilizazioa eta intzidentzia politikoa bultzatzen ditu, eta pobrezia eta desparekotasunaren oinarriak salatzen ditu. Merkataritza-sistema alternatiboa garatzen du eta eredu horretan herrien eskubideak eta ingurumenaren eskubideak dira ekonomia-jardueraren ardatza.



Labore supermerkatu kooperatiboa da eta parte hartu nahi duen oro hurbil daiteke bertara. Produktu guztiek hiru ezaugarri dituzte: bertakoak, ekologikoak eta bidezkoak dira. Irabazi-asmorik gabeko inizatiba da, izan ere, kideek beraiek eta beraientzat sortu eta etikoki finantzatu zuten. Egungo elikagaien eskaintzarekin gustura ez daudenez, kontsumo-eredua aldatzea nahi dute. Ekoizleen eta kontsumitzaileen ahaleginei esker, proiektua hazten ari da.



Hondakinak sortzea eta erositako produktuak ez berrerabiltzea da herrialde garatuen gaitzik larrienetakoa. Erabili eta botatzeko ohitura birus bihurtu da eta behingoz suntsitzen ez badugu, berak suntsituko gaitugu azkenean. Horren aurrean, Kooperak urtero arropak tonaka jaso eta berriro zirkulazioan jartzen ditu. Ondorioz, hiru arazo handi konpontzen ditu: zaborretara arropa gutxiago botatzea, Ekonomia Soziala eta Solidarioa gauzatzea, eta gizarte-bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonak gizarteratzea eta lanean txertatzea.

# Hezkuntza eraldatzailea

Finantzaz Haratago (Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea) proiektuaren hastapenetik, gure lan nagusia finantza-hezkuntza kritikoaren inguruan ikasitakoa partekatzea izan da. Horrela bada, ikasitakoa beste alorretan eta lurraldeetan erabil daitekeen aztertzen dugu, Euskadiko eta beste lekuetako herritar eta erakunde lankideak sendotzeko. Beraz, ikasitakoa partekatu eta dinamika globala egin nahi dugu. Freirek esan bezala, hezi egin nahi dugu, baina ez ikasitako ezagutza irakatsiz, ezpada ezagutza sortzeko eta eraikitzeko aukera emanaz.

Ahalduntze-prozesuak martxan jartzeko hainbat aukera eskaintzen ditugu eta beste egoera batzuetan ere erraz erabil daitezke: jarduera-protokoloak, lanabesak, metodologiak, gidak, ikastaroak, web-euskarriak, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak...

Hezkuntza da gizarte-eraldaketarako tresna nagusia. Garapen jasangarria hezkuntzaren bidez hasten da, eta horrexegatik babesten dute finantza etikoek funtsezko alderdi hori. Espazio horretan, munduak hausnartu egin behar lituzke haurtzaroarekin eta baztertutako pertsonekin dituen konpromiso eta betebeharrak, haien ahotsak askotan isilaraziak baitira. Horrenbestez, nahitaezkoa da hezkuntzaren eraldaketarako ahalmena sustatzea mundu bidezkoagoa lortzeko. Izan ere, ongi hezitako herria jakintzaz ongi jantzitako herria da.

Gizateriaren helburua da kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta zuzena bermatzea eta guztientzat bizitzan zehar ikasteko aukerak sustatzea. Eta hezkuntzaren xedea da pertsonaren errealizazio osoa lortzea eta elkar ulertzea, tolerantzia, adiskidetasuna eta bakea bultzatzea. Hezkuntza ondasun publikoa denez, estatuek arduratu behar dute hezkuntza babesteaz eta hezkuntzarako eskubidea errespetatu eta bermatzeaz. Esan gabe doa hezkuntza eta genero-parekidetasuna elkarri estu lotuta daudela.

“Hezkuntza kritiko emantzipatzailea”-ren arabera, hezkuntza-jarduerak emantzipazioa izan behar du jomuga. Hortaz, kontzientziario prozesuak bultzatu behar dira zapalketak identifikatzeko eta globalizazio garaiko kapitalismoaren ondorioei aurre egiteko zereginak garatzeko. Orintsu arte, aukerak oso lotuta zeuden hezkuntza-erakundeen lankidetzari eta hezkuntzari. Horregatik, beharrezkoa da aukerak zabaltzea eta askotariko aliantzak sortzea; esaterako, gizarte- eta herri-mugimenduekin, haien gaitasunak eta esperientziak indarrak batzeko estrategia ona izan daiteke-eta.

“Lurra ez dago salgai! Berreskuratu eta defendatu egiten da!”. Horixe da Ixim Ulew IALako leloa. Ixim Ulewk arto-lurra esan nahi du Guatemalako maia k’iche’ hizkuntzan. Institutu horretan, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko hainbat gaztek lurra modu jasangarrian eta burujabeen lantzen ikasten dute. Ondorioz, balio humanistak eta sozialistak sustatzen dituzte elikadura-burujabetza eta emantzipazioa lortzeko.



Haziek, metaforikoki, erakusten dute zein garrantzitsua den elikadura-burujabetzan oinarritutako prestakuntza jasagarria. Gaur egun, haziak manipulatu egiten dituzte elikagaiek hazi emankorrik sor ez dezaten (haziak pribatizatu, alegia) eta, horrenbestez, nekazariak multinazional handien mende bizi daitezten. Horregatik, agroekologiari eta elikadura-burujabetzari buruzko prestakuntza ezinbestekoa da gure planetarentzat.



Hezi, hiritartasun globala lortzeko. "Gizarte osoak hezten du eta gizarte osoari egiten dio mesede hezkuntzak, funtsezko tresna baita gizarte bidezkoagoak, kohesionatuagoak, demokratikoagoak eta parte hartzaileagoak eraikitzeko. Ondo hezitako herriak kontzientzia eta konpromiso handiagoa du guztien ongia lortzeko. Horregatik guztiagatik, hezkuntza guztion eskubidea eta erantzukizuna ez ezik, guztion ondarea ere bada".



Asaken: eskalatzaileak, gazteak eta ekintzaileak. Hiru gazte euskaldunek sortu zuten kooperatiba, hiru elementu horiei batu baitzitzaien merkatuan hobia zegoela eta hutsune horretatik euren gaitasunak garatzeko eta bizibidea ateratzeko aukera zutela. Asaken lan bertikaletan espezializatutako enpresa da eta bi lan-mota egiten dituzte: eraikinak birgaitu eta ikuskaritza teknikoak egin; eta eraikuntzak egin.



Beharbada gu bizi garen lekuan hurrek ez dute bide luzea egin beharrik eskolara joateko. Gure inguruaz gehiago jabetzeko, ezinbestekoa da hezkuntza herrialde guztietako txoko denetara heltzeko ahaleginak egitea, biharko hazia ereiteko.

Hezkuntza oso-oso garaiz hasten da beti. Beharrezkoa da hurrei balioak transmititzea, hurrengo belaunaldiak mundu hobea eta bidezkoagoa izateko.



# Emakumeen ahalduntzea



Finantza etikoak eta alternatiboak mundu guztiko emakumeen ahalduntzerako tresna osagarriak dira. Horregatik, ekonomia feministarekin bat egiten ahalegintzen gara euren eskubideen alde borrokatzeko.

Ekonomia feministaren teoriak egungo ekonomia-sistema hegemonikoa salatzen du, genero-desparekotasunaren gainean eraikita egoteaz gain, desparekotasun hori are gehiago indartzen duelako. Horren aurrean, beste modu bateko ekonomia garatzeko proposamenak egiten ditu: ekoizteko, trukatzeko, kontsumitzeko eta zaintzeko bide berriak sortzea dominazio-harremanak zalantzan jartzeko eta bizitza erdigunean jartzea.

Asiako herrialde behartsuetan emakumeak hobetsi ziren mikrokredituak emateko. Izan ere, argi genuen emakumeek arduratsuago itzuliko zutela dirua, berankortasuna txikiagoa izango zela, eta onurak zuzenago iritsiko zirela familiarengana.

Munduko behartsu gehienak emakumeak dira. Hori horrela, autonomia gehiago izate hori sakondu beharra dago. Kritiken arabera, emakumeek autonomia gehiago izatea etxeko eta familiako jarduerak hedatzea besterik ez da. Nahikoa da emakumeek eurek martxan jarritako proiektuei erreparatzea, sukaldeari, josteari eta etxeko lanei lotuta baitaude. Gainera, gehienetan, gizonek dute diruaren kontrola.

Azken urteotan, Latinoamerikan, finantza etikoak landa-eremuko feminismo herrikoiairen alde egiten du. Gizartea eraldatzeko sortutako feminismoa da, emakumeek taldean eraiki dute, behetik hasita, guztien artean adierazitako aldarrikapenekin eta borrokekin. Feminismo horrek gizakien eta naturaren arteko harremana aldatu nahi du: lurra ustiatzea, lurra eta ura metatzea eta baliabide naturalak erauztea zalantzan jartzen du; alegia, natura hilda balego bezala tratatzea arbuiatzen du. Horren guztiaren ordez, landa-eremuko nekazaritza hobesten du.

Emakumeen eta gizonen arteko harremanari dagokionez, aipatutako mugimendu feministak landa-eremuko familietako botere-hierarkia hautsi nahi du antolaketako eta komunitateko espazioetan. Emakumeen lana eta ezagutza kontuan hartu behar dela aldarrikatzen du, besteak beste: ekoizpenerako, haziak landatzeko eta zaintzeko, eta belarrak eta sendabelarrak zertarako erabili behar diren jakiteko (familia eta komunitatea zaintzeko botika integralen ordez erabili daitezkeelako).

Landa-eremuko feminismo herrikoiak sistemaren egitura guztiz aldatzea nahi du, emakumeek jasaten dituzten indarkeria eta desparekotasuna egiturazkoak baitira.



“Odol gorria, alkandora gorria” oihukatu du El Salvadorko Ana Miriam Ramosek, bere alderdiari (Frente Farabundo Martí para la Liberación Nacional, FMLN) aipamena eginez. Bere etxeko atariaren inguruan aske dabilta hegaztiak hegaka. Gustura ikusten ditu oiloak eta txitak. 54 urte ditu, azal beltzarana du eta emakume mardula da. Bederatzi seme-alabaren ama izanik, beti gustatu izan zaio lanean aritzea. Hitz egitearekin batera, aitzurrari heltzen dio, argi dago ondo moldatzen dela aitzurrean. Adiskideek errespetua diote. El Gramal Kooperatibako Emakume Nekazarien Komiteko (Comité de Mujeres Campesinas) burua da.



Emakumeak egotea ez da salbuespena Nikaraguako Ixim Ulew Latinoamerikako Agroekologia Insitutuan (IALA). Historikoki gizonen mundua izan bada ere, ikasle neskak lanean eta borrokan ari dira alor askotan. Bereziki, bi erronka beharrezko baina korapilatsutan egiten dute lan: lurraren defentsan eta emakumeen ahalduntzean.



Dadiana Nikaraguako Ixim Ulew IALA programako ikasle gazte eta borrokalaria da. Gogor defendatzen du landa-eremuko emakumeen ahalduntzea. Landa-eremuan hazitzen eta IALako prestakuntza ez ezik, familiarik jasotako jakintza ere badu. Agroekologiaren sustatzailea da Fundación Entre Mujeresen (FEM) eta fundazio horrek agroekologia eta genero-parekotasuna bultzatzen ditu.



Nekazari batetik bestera. Zer garrantzia duen landa eremuko emakumeen artean jakintza transmititzeak. Mango baten gerizpean, FECORACEN kooperatibako talde bat diagnostikoa egiten ari da: non gaude, zer nahi dugu, nolako landareak edo fruta-arbolak landatuko ditugu lursailetan? El Mango baratze agroekologikoan daude, El Salvadorren. Baratzea Ana Lilian Martinezena da, 52 urte ditu, 12 urte daramatza familiarekin lanean eta orain bere esperientzia kontatzen die komunitateko gainerako emakumeei.

Gero eta emakume gehiago konturatzen dira zer leku duten landa-eremuan eta zer garrantzitsua den euren lana komunitateak garatzeko. Gizarteak aitortza zor die emakumeei, beti ezkutatu izan baita herrialde eta familia guztietako ekonomiaren oinarria direla.



# Agroekologia

*¡La tierra no se vende  
se recupera y se defiende!*

**Agroekologiak** klima-aldaketa arintzeko eta nekazaritzaren erresilientzia indartzeko ahalmena du. Agroekologiaren oinarria aprobetxatzea eta inguruko bitartekoak eta ondasunak ongi kudeatzea da, tokian tokiko nekazaritzako praktikak eta jakintza kontuan izanda.

Agroekologiaren bidez lortzen da elikadura-burujabetza, aldi oro ingurua ulertzeari, bertara egokitzeari eta gizarte-ingurunea eraldatzeari esker. Autonomia eta jasangarritasuna eskuratzeko etengabeko bidean, gero eta mendekotasun gutxiago dugu kanpotik datozen produktuekiko, eta gero eta errespetu eta konpromiso handiagoa dugu ingurunearekin eta lurraldearekin.

Elikadura-burujabetza kontzeptua Vía Campesina nazioarteko mugimenduak sortu zuen, politika neoliberalen ordeztoko alternatiba gisa. Elikadura-burujabetza zera da: herri bakoitzak bere nekazaritza eta elikadura politikak zehaztea, garapen jasangarriaren eta elikagaien segurtasunaren helburuekin bat etorrira.

Beste erakunde batzuek elikagaien segurtasuna aldarrikatzen dute, alegia, elikagaien eskuragarritasuna. Elikadura-burujabetzak, aldiz,

garrantzia ematen dio elikagaiak non eta nola ekoizten diren jakiteari.

2018ko abenduaren 17an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak nekazarien eta landa-eremuetako langileen eskubideen deklarazioa onartu zuen. Orain nazioarteko lege-tresna denez, Vía Campesina eta gainerako kideak mobilizatzen ari dira eskualdeko eta nazioko erakundeei babesa emateko deklarazioa martxan jarri dezaten.

Nekazarien eskubideak eraginkorrak izateko, erreformak behar dira. Erreforma horiek agroekologia, batetik, elikadura-burujabetza eta justizia soziala lortzeko bidea dela bermatu behar dute; eta bestetik, transnazionalak eta agrotokikoek eragindako elikagai- eta klima-krisia konpontzeko giltza.

XXI. mendean nekazaritza sistema jasangarriak garatu behar dira, lurrak eta haziak berreskuratzeko eta justizia soziala, landa-eremuetako identitatea eta kultura bultzatzeko, leku horietako ekonomia indartu dadin. Modu horretan, ekosistema osoaren ikuspegiarekin (alderdi soziala barne), herritarrek elikagai osasuntsuagoak izango dituzte eta, aldi berean, baliabide naturalak eta biodibertsitatea mantenduko dira.



Ugaria izan arren, uraren krisia mundu osokoa da. Gaizki kudeatzen dute, izan ere, nekazaritzako ustiategi batzuetan metatzen dute ura eta beste batzuetan ez dago aski. Ondorioz, laboreetan estres hidrikoa areagotzen da. Agroekologiak baliabide guztiak erantzukizunez eta modu jasangarrian erabiltzeko aldarria egiten du, oreka naturalak ez hausteko eta modu iraunkorren eta burujabeen ekoizteko.

Nikaraguako Ixim Ulew IALako ikasleek agroekologia zein garrantzitsua den ikasten dute. Laborantza-intentsiboetan baliabideak (ura, esaterako) alferrik galtzen dira gehiago eta merkeago ekoizteko. Sistema horren kontrako konponbidea da agroekologia.



Ana Lilian Martinezek El Mango baratze agroekologikoa du, La Libertaden, El Salvadorren. Baratze hori agroekologiaren onuren erakusgarria da: lursail bat soro emankor bihurtu zuen. Aldiz, laborantza-intentsiboek lurraren baliabide guztiak agortzen ditu, argazkiko mendi-bizkarrean ikus daitekeen moduan.



Agroekologiak modu jasangarrian eta produktu kimikorik gabe ekoizteko hainbat modu aztertzen ditu (kafea, besteak beste). Lurrak izurriteak akabatzeko eta elikagaiak lortzeko nahikoa modu ditu, lurraren emankortasuna agortu gabe.



Denis gazte nikaraguarrak Ixim Ulew IALAn ikasten du eta erleak izaki bizidunen kate ahuleko ardatz direla aldarrikatzen du. Ondoko herrialdean, El Salvadorren, Asociación Cooperativa de Miel Natural El Enjambren ezitia ekoizten dute metodo tradizionalen eta jasangarrien bidez. Eskuz etiketatzen dituzte botilak eta supermerkatu handietan aurkitzea ia ezinezkoa den ezitia saltzen duten, baina halako ezti gehiago eduki behar genuke gure etxeetan.

Valeriaren istorioa gauzak ongi egitearen istorioa da. Nikaraguako Gobernuak zerri bat eman zion bonu produktiboen bidez, zerria zaindu eta kumeak hazi ditu eta horixe da familiaren bizibide nagusia. Pupusa-postu bat ere badu errepide ondoan eta bi jarduerekin gai da bere bizitza-proiektua garatzeko.



